



TOLOSAKO
UDALA

2021IGBA00028

GOBERNU BATZARRA

2021.12.21

Alkatea:
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:
Xabier Balerdi Tolosa
Begoña Tolosa Mendia
Nerea Letamendia Belloso
Patxi Amantegi Zubiria
Jose M^a Villanueva Telleria

Idazkaria:
Begoña Garmendia Tolosa

Kontuhartzaile akzidentala:
Paulino Alonso Eraso

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hogeita bateko abenduaren hogeita batean, 11:15ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko:

1. Akta hau onartzea: 2021eko abenduaren 14koa.
2. 12.4 San Frantzisko pasealekua 32-34-36" azpiesparruan dagoeneko eratuta dagoen zortasuna arautzeko eskritura publikoaren berrespena.

1. AKTA HAU ONARTZEA: 2021EKO ABENDUAREN 14KOA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2021eko abenduaren 14an egindako ohiko batzarreko akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

2. 12.4 SAN FRANTZISKO PASEALEKUA 32-34-36" AZPIESPARRUAN DAGOEN EKO ERATUTA DAGOEN ZORTASUNA ARAUTZEKO ESKRITURA PUBLIKOAREN BERRESPENA.

Esparrua: 12. San Frantzisko
Azpiesparrua: 12.4 San Frantzisko Pasealekua 32-34-36
Espedientea: 2018H3160006

AURREKARIAK

2019ko apirilaren 2an Udaleko Idazkariak egindako ziurtagiriaren arabera, "12.4 San Frantzisko pasealekua 32-34-36" azpiesparruko Exekuzio Unitatearen Bipartzelazio Proiektuko "A.20.1/12.4" ondoriozko partzela hondoko zortasunarekin zamatuta geratu zen:



“Se constituye sobre la presente parcela una SERVIDUMBRE DE USO PÚBLICO que comprende una superficie de setecientos ocho metros con noventa y cinco decímetros cuadrados (708,95 m²), coincidente con el espacio sobre rasante de la parcela no ocupada por la edificación prevista, tal y como queda reflejado en el PLANO 07 del proyecto de reparcelación.

El destino o uso público de la zona afectada será el así establecido para las parcelas de tipología “f.10 espacios libres urbanos” del Plan General de Ordenación Urbana de Tolosa.

Sobre la zona afectada por la servidumbre no podrá implantarse edificación, construcción o instalación alguna”.

2021eko uztailaren 26an, 1321/2021 Alkate Dekretu bitartez, besteak beste, lehen erabilera lizentzia eman zitzaion San Frantzisko 32 eta 34 eraikinei. Erabilera publikoko zortasunaren edukia, ordea, ez zen definitu ez eta alderdien betebeharrak zehaztu.

2021eko irailaren 10ean, Josu Ferro Urigüen jaunak tolosako udalean eskaera egin zuen "12.4 San Frantzisko pasealekua 32-34-36" azpiesparruko "A.20" lurzatiaren (21910 Jabetza Erregistroko finka) erabilera publikoko zortasuna aldatzeko.

2021eko irailaren 10ean, 1493/2021 Alkate Dekretu bitartez, ebatzi zen 2021eko uztailaren 26an emandako 1321/2021 Alkatetzako Dekretuan honakoa eranstea:

“Erabilera Publikoko Zortasunaren definizioa, eskritura publiko bihurtu eta Jabetza Erregistroan inskribatu beharko dena, honako hau izango da:

Zortasunak eragindako azalera osoan dauden zoladurak eta hiri-altzariak mantentzea, garbitzea, kontserbatzea, konpontzea eta ordeztzea zortasunaren titularraren kontura izango da, hau da, Tolosako Udala.

Zoladuraren azpiko geruzak mantentzea, garbitzea, kontserbatzea, konpontzea eta ordeztzea, garajeen estalkiari dagozkion xafila iragazgaizatzailak abiatuta, lurzatiaren jabetza osoaren titularraren kontura izango da”.

2021eko irailaren 10ean, “12.4 San Frantzisko Pasealekua 32-34-36” azpiesparruan dagoeneko eratuta zegoen zortasuna arautzeko eskritura publikoa (*Maria Valentina Montero Vilar Euskal Herriko Elkargoko notarioaren bederatziehun eta laurogeita sei zenbakia*) sinatu zen “Promotora Iristizabal SL”, Jose Angel Chapartegui Izaguirre jaunak ordezkaturik, eta Tolosako Udalaren, Olatz Peon Ormazabal Alkateak ordezkaturik, artean.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

I. Besteak beste, honako hau da aplikatu beharreko legeria:

- 1946ko otsailaren 8ko Dekretua, Hipoteka Legearen idazketa ofizial berria



onartzen duena.

- 1093/1997 Errege Dekretua, uztailaren 4koa, hirigintza-izaerako egintzak Jabetza Erregistroan inskribatzeari buruzko Hipoteka Legea betearazteko Erregelamenduen arau osagarriak onartzen dituena.
- 33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoa.
- 1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duena.
- 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa.
- 105/2008 Dekretua, ekainaren 3koa, 2/2006 Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legea garatzeko premiazko neurriei buruzkoa.
- 3288/1978 Errege Dekretua, abuztuaren 25ekoa, Lurzoruen Erregimenari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legea garatzeko eta aplikatzeko Hirigintza Kudeaketaren Erregelamendua onartzen duena.

II. Alkatetzari legoke "12.4 San Frantzisko pasealekua 32-34-36" azpiesparruan dagoeneko eratuta dagoen zortasuna arautzeko eskritura publikoa berrestea (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1.j) artikulua). Tolosako Udalari dagokionez, ordea, hirigintza-kudeaketarako tresnak onartzeko eskuduntza Tokiko Gobernu Batzordeari (aurrerantzean, TGB) eskualdatu zitzaion 2019/1228 Alkatetza Dekretuz. Hortaz, azken organo horri dagokio aipatutako berrespenna ematea.

AZTERKETA JURIDIKOA

2021eko irailaren 10ean "12.4 San Frantzisko Pasealekua 32-34-36" azpiesparruan dagoeneko eratuta zegoen zortasuna arautzeko sinatutako eskritura publikoan jasotako erabilera publikoko zortasunaren edukia ez zen sinatu aurretik Tokiko Gobernu Batzordean onartu. Eta, kontuan izanik hori organo horren eskumena dela, beharrezkoa da eskritura bera eta bertan jasotako erabilera publikoko zortasunaren edukia TGBk berrestea.

Aurreko guztia ikusita, eta kontuan izanik espedientean jasota dauden txosten juridikoak eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Berrestea 2021eko irailaren 10ean sinatu zen "12.4 San Frantzisko Pasealekua 32-34-36" azpiesparruan dagoeneko eratuta zegoen zortasuna arautzeko eskritura publikoa (*Maria Valentina Montero Vilar Euskal Herriko Elkargoko notarioaren bederatziehun eta laurogeita sei zenbakia*) zein bertan jasotako erabilera publikoko zortasunaren definizioa, honako eduki honekin:

“Zortasunak eragindako azalera osoan dauden zoladurak eta hiri-altzariak mantentzea, garbitzea, kontserbatzea, konpontzea eta ordeztea zortasunaren titularren kontura izango da, hau da, Tolosako Udala.

Zoladuraren azpiko geruzak mantentzea, garbitzea, kontserbatzea, konpontzea eta ordeztea, garajeen estalkiari dagozkion xafra iragazgaizatzailleak abiatuta, lurzatiaren jabetza osoaren titularren kontura izango da”.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea interesatuari eta Hirigintza Sailari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 11:45ean.

ALKATEA

IDAZKARIA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2021IGBA0028-2021-12-21 Gobernu batzarreko akta/2021-12-21 Gobernu